

BEZEROEKIKO HARREMANA

Handi - Park proiektuak arrakasta izan dezan, oso garrantzitsua da bezeroekiko harremana zentzuzkoa eta egokia izatea. Izan ere, bezeroak izango dira gure enpresa bultzatuko duten pertsonak. Azken finean, gure helburua argia da, bezeroak erakartzea gure proiektua poliki-poliki munduan zehar zabaltzeko. Oso argi daukagulako pentsatu genuen ideia hau ondo bideratuz gero arrakasta izan dezakeela. Horretarako hasiera batetik bezeroekiko harremana egokia izan behar da.

Bezeroekiko harremana egokia izateko, etengabe gurekin kontaktuan egon ahal izatea oso garrantzitsua da. Horretarako, web - orri bat egitea pentsatu dugu, hor informazio guztia txertatuz. Hala ere zalantzak suertatzea normala da eta horren aurrean telefono bat edukiko dugu (enpresako telefonoa) non hara deituz gero zalantzak argitu ahaliko ditugun. Arazoren bat egonez gero, e-mail bat sortzea ere pentsatu dugu. E-mail-an bertan zalantzak idatzi eta ahalik eta azkarren erantzuten saiatuko gara.

Hori alde batera utzita, esan beharrekoa da dauzkagun langile guztiak guztiz prestatuak daudela edozein larrialditarako. Lehenik eta behin, langileek, kontratatuak izateko, hasieratik eskatuko ditugun irizpide eta xehetasunak bete beharko dituzte, irizpide horien adibide da sorospen titulua izatearena, edozein larrialdietarako prest egon behar baitira. Hori gutxi ez balitz, hizkuntzen garrantzia ere kontuan hartu dugu, edonor etorri daitekeelako eta gutxien espero denean beste herrialde batekoa izan daiteke, lokalaren itxura gustatu zaiolako edo edonork daki. Momentu horretan ere prest egon beharko gara bezeroari behar bezla erantzuteko.

Alokatuta daukagun lekuan edozein gazte sartu daiteke ondo pasatzera, izan ere, ez dugu ez sexu, ez arraza eta ez klase sozial desberdinetako edonor kanpoan utzi nahi. Gai honen inguruan nahiko arazo baitaude oraindik ere mundu honetan. Lotsagarria baita XXI. mendean horrelako gauzak gertatu ahal izatea eta hori gerta ez dadin gu ere laguntzen saiatuko gara.



Bezeroarekiko harremana egokia bada, bezeroak irabazten eta poliki - poliki dugun helbura handitzen joango gara. Etorritako bezeroekin harreman egokia izanez gero bezero gehiago erakartzen joango gara. Gure lana nahiz eta ondo antolatu eta asko landu bezeroak dira eragile nagusiak lehen aipatu dugun moduan. Beraiei esker lortu dezakegulako pentsatu dugun enpresa honek izugarritzko arrakasta izatea.

Azkenik, enpresak arrakasta lortzen badu, iritzi eta ikuspegi onak jasoz enpresa handitzeko asmoak ere baditugula aipatzekoa da.

